

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xantox Gabarain Urretabizkaia

*Irura, Gipuzkoa
(1930-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Irurako paper fabrikako Etxezarreta etxean jaioa. 4 urte zituela aita galdu zuen eta 9 urterekin Segurako Andreaundieta baserrira joan zen morroi, bizimodua aurrera ateratzearen. Abeltzantzan aritu zen batez ere, 16 urte arte, bizimodu harekin gustura ez zegoela ohartu zen arte. Irurara bueltatu eta Garmendiakoekin aroztegian hasi zen lanean. 22 urte zituela Burgosera joan zen soldaduskara. Infanteria egokitu zitzaion eta oso gustura aritu zen zaldiekin erakustaldiak eginez; motoa, kotxea eta kamioia gidatzeko baimena ere atera zituen bertan zela. Etxera bueltatu zenean, kamioilari gisa aritu zen lanean batera eta bestera. 28 urterekin, Aceros Iruran hasi zen lanean eta kamioia saldu zuen. Inazia Belaunzaran Urruzolarekin ezkondu zen bi urte beranduago eta lau seme-alaba izan zituen. 20 urtez Irurako bake-epailea izan da eta oso gizon maitatua da herrian. Bertsolaritzarako zaletasun handia izan du betidanik, eta bertsolari handiekin bertsotan sarri aritu da, besteak beste, Lazkao Txikirekin, oso laguna zuen-eta.

Zintak

IRU-014

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-12-14
- **Iraupena:** 98 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com